

Gure zerbitzuak terapia, kit-ak, infusioak eta aplikazioa dira eta ezinbestekoa da bezeroekin harremanetan jartzea salerosketa harreman egoki bat burutzeko. Alde batetik, gure bezeroekin harreman fisikoan jardungo dugu, hau da, kontsultan eta gure denda fisikoan, Donostian, alegia. Beste aldetik, sare sozialen erabilera burutuko dugu (Whatsapp eta Instagram) Herrialde osoko herritarei gure produktuen berri emateko, informazioa helarazteko, eta zalantzak argitu ahal izateko. Horretaz gain, gure web horrian eskuragarri izango dugu eskaintzen ditugun zerbitzu guztien informazio espezifikatua, prezioarekin batera, baita kontsulten erreserbak egin ahal izateko aukera ere. Hori gutxi ez balitz, gure aplikazioak IA, inteligentzia artifiziala, izango du eskuragarri bezeroekin elkarrizketa zuzenak izateko, eta ondorioz, salerosketa-harremana sustatu ahal izateko.